

## Jone Vasalloren 20.logotipoa izan da irabazlea

2015/01/09

Jone Vasallok aurkeztu duen 20.logotipoa izan da aukeratua aurten jokatu den Euskadiko XV.Unibertsitate-Kirol Txapelketa iragartzeko. Epaimahaiaren arabera "logotipoaren sinpletasuna eta argitasuna nabarmentzekoak direlako" izan da aukeratua. Baita "hiru unibertsitateak maila berean agertzen direlako". Logotipo hau edizio honetako kartel, eskuorri eta oparietan ikusi ahal izango da.

Gure zorionik beroena irabazleari! Saria jasotzera Arrasateko MGEP fakultateko Kirol Zerbitzutik pasa zaitezke hurrengo hamabost egunetan.

Antolakuntzatik eskerrak eman nahi dizkizuegu parte hartu duzen guztioi aurkeztutako lan ederrengatik eta animatu nahi zaituztegu hurrengo diseinu lehiaketetan ere parte hartzera.

